Sarrera honetan sinonimoak eta antonimoak landuko ditugu; horretarako hurrengo ariketa egingo dugu:

1.Hasieran barrabaskeria bat egitea otu zitzaidan, baina bi aldiz pentsatu eta atzera egin nuen. **Barrabaskeria** hitzaren baliokidea.

a) Erokeria / b) Lelokeria / c) Bihurrikeria

2.Azken bolada honetan **ondoezik** nabil. Zein da ondoezik hitzaren baliokidea?

a) Makal / b) Pozik / c) Gaixorik

3.Honako **bikote hauetan** zein dira **sinonimoak**?

a) Garbitu-ikuzi / b) Eragotzi-onartu / c) Ausart-koldar

4. Zer da **zinez**?

a) Biak daude ondo / b) Egiaz / c) Benetan

5.Zer da **aldiz**?

a) Bider / b) Asko / c) Inoiz

6.Zein da **ezinbestekoak** hitzaren sinonimoa?

a) Nahitaezkoak / b) Beharrezkoak / c) Ezinezkoak

8.**Antonimo bikote** hauetatik bat oker dago. Zein?

a) Azkarra-geldoa / b) Lizuna-argia / c) Urduria-lasaia

9.Hau **eromena**! horrela ez dago lan egiterik. Eromena hitzaren sinonimoa, zein da?

a) Zoramena / b) Irudikapena / c) Gozamena

10.Zein da **arin** hitzaren parekoa?

a) Gaizto / b) Ertain / c) Bizkor

11.**Antonimo** bikote hauetatik bat **oker** dago. Zein?

a) Amatatu-piztu / b) Bihurritu-okertu / c) Ihardetsi-galdetu

12.Zein da **noranahi** hitzaren baliokidea?

a) Edonora / b) Nolabait / c) Norabiderik

13.Maindire zuri-zuriak eraman zituen ezkontzara, ilusioen antzera, amak erosiak. **Maindire** hitzaren **sinonimoa**?

a) Izara / b) Manta / c) Estalkia

14.Bronkitisa da tabakoak eragindako gaixotasunetako bat. Zein da **eragindako** hitzaren sinonimoa?

a) Ekoiztutako / b) Gertatutako / c) Sortutako

15.Zein da egokia pilotariak **huts egin** duela adierazteko?

a) Kalera bota du / b) Kale egin du / c) Poto egin dio